20 09
ANOETAKO ESTADIOA

Donostiako futbol zelaiei buruzko historia laburra Ondarreta hondartzatik gertuko lurraldeetan hasten da, non hiriko lehenengo puntako taldeek jokatu baitzuten.

Atotxako Udal Futbol Zelaia 1913an inauguratu zen. Bere edukiera behin eta berriro handitu da hainbat tribuna eraikiz, beraz, 17.000 ikuslera arte hartzera iritsi zen. 1993an Real Sociedad taldeko partida profesionalak antolatzeari utzi zioten eta zenbait urte beranduago eraitsi egin zuten.

Ordezkoa Anoetako Udal Estadioa izan zen (1993), 32.000 ikusleentzako edukierarekin, denak eserlekuarekin. Berez, futbol zelaiko neurriak 105x70 m dira.

Estadioa lehortutako padura zahar baten gainean eraikita dagoenez, hura hormigoi armatuko piloteen bidez eraiki zen, eta harmailak egitura horren gainean ezarri ziren. Haren barruan, atletismo pistak eta futbol zelaia aurkitzen dira. Hori dela eta, beti esan da Anoetako estadioa “hotza” dela, zaleak joko eremutik oso urrun daudelako.


Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Real Sociedad de Fútbol elkarteak finantzatu zuten, eta era horretan, ziurtatu zen estadioa zenbait kirol txapelketatan erabiliko zela. Haren kudeaketaz, berriz, “Sociedad Privada Municipal Anoetako Kiroldegia” elkartea arduratzen da. Hura erreformatzea aurreikusi da, atletismo pistak kentzeko eta edukiera 42.000 ikusle artera handitzeko.

Real Sociedad de Fútbol taldeko partidak hartzeaz gain (eta batzuetan bere B taldekoak ere) bestelako erabilerak ere eman zaizkio, besteak beste: errugbi zelai gisa partida zehatzetarako, kontzertu handien eszenatoki gisa eta baita bestelako erabilera jendetsuak ere.

Estadioan oso txapelketa atletiko eskasak egin dira. Jarduera honetarako inaugurazioa 1993ko uztailaren 29an antolatu zen, Atletismoko Europako Junior Txapelketekin. Eta horien ondoren, besteak beste, 1994, 1998 eta 2007. urtetako Espainiako Atletismo txapelketak antolatu ziren.

Lehenengo futbol partida Real Sociedad eta Real Madrid taldeen arteko partida adiskidetsua izan zen 1993ko abuztuaren 13an.

Tribunapean kirolerako erabiltzen diren hainbat bulego (kirol federazioen egoitza), kultur etxe bat eta Real Sociedad elkartearen museoa aurkitzen dira.




Ortoargazkia 1984/85. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografiako Erakunde Nazionala. El Desaparecido campo de fútbol de Atotxa.



Mendebaldeko tribunaren ikuspegi partziala.



Ekialdeko tribunaren ikuspegia.



Ortoargazkia 1954. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco: geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa. 1940. urtean inauguratutako jatorrizko estadioa argi ikusten da, "Anoetako Kirol Hirikoa", HM-IE norabidean orientatuta. Anoetako estadioa (1993) gorriz adierazi da, lehenengoaren gainean eraikita, baina zelaia IM-HE norabidean orientatuta.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 583252.5962 // Y: 4794794.2781 // Z: 5 m. Anoetako Estadioa.